

EKONOMIA- ETA ARAU-KONTROLAREN TXOSTENA, XEDAPEN OROKORRAK EGITEKO PROZEDURAREN LEGEAREN AURREPROIEKTUARI BURUZKOA

Espediente-kodea: DNCG_LEY_162739/17_02

Aipatutako proiektuari buruzko espedienteaz azaltzen den dokumentazioa aztertu ondoren, honako hau adierazi behar dugu:

- 1.** Gobernu Kontseiluaren 2017/02/28ko Erabakiak XI. Legegintzaldiko (2016-2020) legegintza-programa onetsi zuen, eta erabaki horren I. eranskinean azaltzen den lege-proiektuen zerrendan honako hau ere biltzen da: «Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren Legea aldatzea». Era berean, jasotzen da Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila izango dela sail sustatzailea eta aurreikusten da Gobernu Kontseiluak 2018ko bigarren lauhilekoan onartuko duela.
- 2.** Proiektu hori, halaber, Gobernu Kontseiluaren 2018/02/13ko Erabakiaren eranskinean azaltzen da (2. 2.1 apartatua). Erabaki horren bitartez, 2018. urterako Urteko Araugintza Plana argitaratzea onartu zen.
- 3.** Nahiz eta proiektua hasi gaur egun indarrean dagoen legearen aldaketa gisa (xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duenaz ari gara), prozedura gauzatu bitartean ikusi da egokiagoa dela lege hori ordeztuko duen testu oso bat egitea.
- 4.** Azterketaren xedeko proiektua egitea Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen mende dago (proiektu honek Lege hori ordeztu nahi du, hain zuzen ere).

Prozedura horri dagokionez, honako hau nabarmendu behar da:

- a)** Enpresaren gaineko eraginari buruzko txostenaren falta nabaritzen da, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikulua eskatzen duena alegia¹, eta ez da hori ez ekartzeko arrazoirik ageri. Gure ustea da omisio hori konpondu egin behar dela.
- b)** Ez da txertatu, ezta ere, ez baitago jasota eskatu denik, Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundearen nahitaezko txostena, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako

¹ Artikulu horren 2. apartatuan adierazten denez, «txostena nahitaezkoa izango da izaera orokorreko xedapenak lantzeko prozeduran...».

otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 21. artikuluan aurreikusten dena. Konpondu egin behar da gabezia hori.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren (EKKLD) 27. artikulua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 44. artikuluari dagokionez, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak ekonomia- eta arau-kontrola nola egin behar duen ezartzen du beste eduki batzuen artean.

Hala, ezarritakoaren arabera, kontrol modalitate hori kontrolatu behar den araua edo xedapena horretarako eskumena duen organoari onartzeko aurkeztzen zaion unea baino lehenago gauzatuko da, edo, hala badagokio, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari kontsulta egin baino justu lehenago.

Gai horri dagokionez adierazi behar dugu ekimena sustatu zuen organoak Bulego honek prozeduran esku hartzeko eskatu zuela (2018/07/10) jendaurreko informazioaren izapidea oraindik gauzatu gabe zegoenean. Izapide horrek hogeitun egun balioduneko epea ezarri zuen alegazioak egiteko. Epe hori 2018/07/23an² bukatu zen, baina espedienteak ez du informaziorik gehitu izapide horren emaitzari buruz, ezta alegaziorik egin zen ala ez, eta alegazioak egin baziren, kontuan hartu ziren ala ez, eta, azken kasu horretan, kontuan ez hartzeko arrazoiak zein izan ziren ere; zalantza dago txostena egiten ari gatzaizkion testua behin betikoa den, izapide horren emaitza eta oharrak kontuan hartuta.

Azkenik, adierazi behar da txosten hau eskatu zenean espedientea ez zegoela osatuta eta generoaren araberako inaktuaren txostena eta memoria ekonomikoa ondoren txertatu zirela (biak 2018/07/19an txertatu ziren); nolahi ere, txostena egiteko proposatutako testuari bere horretan eutsi zaio.

e) Espedienteak barnean hartzen du (2018/07/10) alegazio-idazki luze bat, Ogasun eta Ekonomia Sailaren Aholkularitza Juridikoak egindakoa. Alegazio horiei dagokienez, gaur egun, ez da azaltzen ekimena sustatu zuen organoak kontuan hartu dituenik, eta ez dakigu horren arrazoa zein den.

² Ebazpena, 2018/06/15ekoa, Lege Garapen eta Arau Kontrolerako zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren Lege-aurreproiektua, -2018/06/25eko EHAA, 121. zk.-.

Horren arrazoa bada idazki horretan egindako kontsiderazioak nahita kontuan ez hartzea, ez direlako egin –esaten denez– proiektua sailera bideratu zenean berariaz emandako epean, gure ustez, baiki, erabaki hori neurritz kanpoko izango litzateke; izan ere, jendaurreko informazioaren izapidean alegazioak egiteko irekita zegoen epean egin zirenez, alegazio horiek kontuan hartzeak ez du esan nahi jaramon egin behar zaienik, ezta proiektatutako araua hobeto eratzeko alderdi interesgarriak izan ditzaketenik ere.

Dena den, gure ustean, Ogasun eta Ekonomia Saileko Aholkularitza Juridikoak egindako oharra azertu eta balioetsi egin behar dira, eta, hala dagokienean, kontuan ez hartzeko arrazoiak adierazi behar dira.

5. Aurreproiektuari, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko Legearen 3.1.a) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, kontsulta-organo horren irizpena egin beharko zaio, onartu aurretik.

Horri dagokionez, gogoratu behar da, EKKL Dren 27.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari jakinarazi behar zaizkiola Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak emandako irizpenaren iradokizunen eta proposamenen ondorioz lege-aurreproiektuetan eta arauzko xedapen-proiektuan egiten diren aldaketak (gogorarazi da izapide hori betetzeko, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren zuzendariaren 2005eko urriaren 14ko 2/2005 zirkularra egin zela).

6. Bulego honek txostena egin dezan bidalitako testuari eta bertan azaltzen denari dagokionez, guk uste dugu, oro har, testua egokitzen zaiola proiektuan agintzen den helburuari. Hala ere, gure iritzian, egokia da azalpen hauek egitea:

- a) Ohartarazpena egin behar dugu aurreproiektuaren 13.4 artikuluan azaltzen den aurreikuspenaren irismenari buruz: saileko zerbitzu juridikoaren azterketaz ari gara. Gai horrek eztabaidak eragin ditu prozesua gauzatzeko garaian; izan ere, txostena egin duten saileko aholkularitza juridikoek (*Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailekoak*) eta alegazioak egin dituztenek (*Ogasun eta Ekonomia Saillarenak*) beren iritzia eman dituzte gai horri buruz, eta ez datoz bat proiektua sustatu duen organoak (*Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza*) proposatu duenarekin.

Gai hori aipatu dugu ez dakigulako arau-aurreikuspen horrek zer eragin izan dezakeen Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 12. artikuluan i) apartatuan [*Eduki arauemailea duten eta Eusko*

Jaurlaritzak onartutako indarreko dekretu baten garapenean edo aplikazioan ematen diren agindu-proiektuak] eta j) apartatuan [Laguntzak edo diru-laguntzak baino arautzen ez dituzten agindu-proiektuak] azaltzen diren gaien trataeran, saileko txosten juridikoen xede gisa aurreikusten baitira.

Dena den, eta horri dagokionez, adierazi behar dugu aurreproiektuaren 21. artikulua, Kontrol Ekonomikoko Bulego honen nahitaezko txostenari buruzkoa bera, bermatu egiten duela EKKLDn azaltzen diren berriazko aurreikuspenak aplikatzea. Hortaz, EKKLDren arabera, arau-xedapenei buruzko proiektu guztiek (eta «diru-laguntzetarako programek») eduki behar dute Bulego honen ekonomia- eta arau-kontrola. Txostena egiteko prozedura Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuan zehaztuta dago, eta, aipatu 21. artikulua espezifikotasunaren arabera, nahitaezko txosten honi aplikatu ahal izango zaio, gure ustez.

464/1995 Dekretuaren 42.3 artikuluan ezartzen denez, proiektu horiekin batera, proposatutako erregulazioari indarra ematen dioten iritzi orokorrak eta juridikoak ezagutzeko bide eman dezaketen datu, txosten eta ikerketa guztiak jaso beharko dira, baita txostena emateko bideak erraztuko dituzten beste edozein ere. Horregatik, aurreproiektuaren 13.4 artikuluan azaltzen den aurreikuspenak aurrera egiten badu, gure aburuz, sail sustatzaileak egokitasunari buruz eduki dezakeen iritzia gorabehera, arau-xedapenaren proiektuak, ekonomia- eta arau-kontrolako izapideak egiten zaizkionerako, txosten bat izan beharko du, proposatutako erregulazioaren oinarri juridiko gaitzaileak aztertzen dituena.

Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena egiteko ohar espezifikoki hori alde batera utzita, proposamenari dagokionez, guk uste dugu xedapen orokorrak egiteko prozeduran ezinbestean bermatu behar dela, inongo zalantzarik gabe, proiektu oro nahitaezko erabaki juridiko baten babesean egotea. Erabaki hori administrazio jarduleak hartuko du, eta berriaz egiaztatuko ditu proiektuaren edukia Legearen eta Zuzenbidearen arabera den eta araugintza-teknikaren jarraibideak bete diren.

Eskakizun hori argi eta garbi adierazi behar da, bereziki garrantzitsua baita xedapena Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren legezketasunari buruzko nahitaezko txostenari eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpenari lotuta ez badago.

Ildo horretatik, guk uste dugu egokiagoa dela aurreproiektuak hasieratik edukitzea, egungo erregulazioan jasotzen den bezala, (abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7.3 artikulua), analisi juridikoko txosten bat, proiektuaren edukia Legearen eta Zuzenbidearen arabera den eta araugintza-teknikaren jarraibideak bete diren aztertzeko.

- b)** Aurreko apartatuan adierazitakoari dagokionez, hau ere aipatu beharra dago: aurreproiektuak zer tratamendu ematen dio 13. artikuluan jasotzen den memoria ekonomikoari.

13.3 artikuluan ezartzen da zuzendaritza-zentro eskudunak arau-eraginaren azterketari buruzko memoria egingo duela nahitaez. Memoria horren edukia artean honako hau azalduko da: *«Ekonomian eta aurrekontuan duen eragina. Araua aplikatzeak ukitutako sektore, eragile eta taldeetan izango dituen ondorioak ebaluatuko ditu, baita lehiarengan eta lehiakortasunarengan duen eragina ere. Gai horiei buruz unean-unean indarrean dagoen legeekin nola txertatzen den ere ebaluatuko da (d. apartatua), eta proposamenak izan ditzakeen karga administratiboak identifikatuko dira, hura betetzeak Administrazioari eta kargei aurre egin behar dietenei ekarriko dien kostua zenbatuko da, bereziki aipatuta enpresa txiki eta ertainen gaineko eragina (e. apartatua).*

Arau-eragina aztertzeko memoriari dagozkion aurreikuspen horiek (13.2) Sailaren irizpidearen esku uzten dute memoria ekonomiko espezifiko bat egitea (13.5); betiere, alde batera utzi gabe Kontrol Ekonomikoko Bulego honek egin beharreko txostena EKKLDren baldintzen arabera gauzatu ahal izatea (21. artikulua).

Eratutako prozedura kontuan hartuta, pentsa daiteke 13.5 artikulua ematen duen ahalmenak sailaren esku uzten duela («sailak hala iritziz gero, ekonomian duen eraginaren arabera» , adierazten da aurkeztutako testuan) memoria ekonomiko espezifiko txertatzea, ekonomia- eta aurrekontu-alorreko bokazio argia duena

(13.5 artikuluan honako hau adierazten da: «*Memorian aipatuko da eta aurretiko onarpena jaso duen testuan izandako aldaketak kontuak hartuta, hasierako aginduan aurreikusitako kostuen balioespeneke balizko zehaztapenak edo desbideratzeak egiaztatuko edo adieraziko ditu, eta, orobat, gastuak eta diru-sarrerak zenbatuta, Administrazio Publikoaren aurrekontuetan izango duen eragina, finantzaketarako iturri eta moduak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ekonomia- eta araudi-kontrolaren gaineko arauak zehaztutako beste alderdi batzuk*»).

Hori gorabehera, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren nahitaezko txostena egiteko fasea iristen denean, aurreproiektuaren 21. artikulua, EKKLDra joz, aipatutako 464/1995 Dekretua aplikatu behar dela onartzen du; izan ere, Dekretu horren 42. artikuluan ekonomia- eta arau-kontrolaren txostena egiteko prozedura arautzerakoan honako hau ezartzen da: «*Oro har aplikagarriak diren arauen indarrez, prozedurak kontuan hartuta agian eskatu daitezkeen beste baldintza edo izapide batzuen kaltetan gabe, kontrol ekonomiko eta araubidezkoari atxikita dauden xedapen guztiekin batera, memoria bat aurkeztu beharko da oinarrizko dokumentu gisa. Gutxienez honako hauek jaso beharko dira bertan: a) Hori indarrean jartzeak ekar ditzakeen aurrekontu-gastu eta diru-sarreraren kuantifikazioa, ohikoak direnak eta kapital-eragiketetatik datozenak bereizi egin beharko direla eta gastu edo diru-sarrera horien destinoa identifikatu egin beharko dela, b) Aurrekontu gastuen finantzaketa, eraginpean dauden errekurtsuak eta Euskal Autonomi Erkidegoko aurrekontu orokorrez aparte ematen diren finantzaketa-iturriak aipatuz, c) Euskal Autonomi Erkidegoko Ogasuntza orokorraren gaietan eta aurrekontu-araubidean eragina duen xedapeneko aldeak identifikatzea, xedapenaren aurrekariak deskribatzea eta horren beharrak justifikatzea, d) Proposamenaren gai den xedapena han sartzen deneko aurrekontu-programa ekonomikoaren deskripzioa, arau hori indarrean jartzeak bere baitan hartuko dituen helburuak, egintzak eta indikatzailak identifikatuz eta hori aplikatzeak ekonomia- eta gizarte-mailan izango dituen eraginaren ebaluazioa eginez, e) Programak eta lortzea nahi deneko helburuak exekutatzeko eta betetze graduaren ebaluazioa, diru-laguntzapeko programak garatzeko emandako arauak izan daitezenean. Diru-laguntzen deialdien ebaluazioa ere egin beharko da, deialdi horiek beste ekitaldi batzuetan onartutakoen jarraipena izan daitezenean*».

Gauzak horrela, ikusi dugu 13.5 artikuluko planteamendua, salbuespenik gabe, kontrol ekonomikoko bulegoak nahitaezko txostena emateko ezarritako araudiari lotu behar litzaiokeela, eta ez lukeela interpretatzeko biderik eman behar; aurreproiektuaren 21. artikulua, bestalde, ondorioz gabe utziko lituzke bide horiek.

Planteamendu hori egin ostean, adierazi behar dugu Memoria ekonomikoa eratzeko, EKKLDra jotzeaz haratago, gure ustean, egokiagoa dela «kontrol ekonomikoko nahitaezko txostena egiteko ezarritako araudi espezifiko» aipatzea. Formula horrek bere osoan hartzen du araudi hori, eta, gainera, instruktorearen zalantzak ekiditen ditu, izapidetzen ari den arau-ekimenak ekonomian eta aurrekontuan duen eraginari eman behar dion irismenaren gainean, etorkizuneko Lege honek ezartzen duenaren eta EKKLDren erregelamenduan zehaztutakoaren artean gai horri buruzko trataera terminologiko homogenezorik ez badago ere³.

Horregatik guztiagatik, gure ustez egokiagoa da argi uztea aurreproiektuak aipatu egin behar duela dagokion proiektuak, ekonomia- eta arau-kontrola izapidetzen zaionean, memoria ekonomiko bat eduki behar duela, egungo erregulazioan jasotzen denaren arabera, (urriaren 22ko 8/2003 Legearen 10.3 artikulua). Memoria horretan gutxi gorabeherako kostua zein izango den adieraziko da EAEko ekonomia- eta kontabilitate-kontrolari buruzko araudiak ezarritako baldintzen arabera (hau da, hauek adierazita: gastuen eta diru-sarreraren kuantifikazioa eta horiek Administrazio Publikoaren aurrekontuetan duten eragina, finantzaketa-iturriak eta -moduak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan ekonomia- eta arau-kontrola arautzen duen araudian ezartzen diren beste alderdi batzuk, baita hura aplikatzeak beste Administrazio Publiko batzuetan, partikularrengan eta ekonomian orokorrean eragin dezakeen kostuaren ebaluazioa ere).

³ Lan hori erraztearren, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak kasu bakoitzean erabil daitezkeen memoria ekonomikoko ereduak onartu zituen, orientazio gisa, ekonomia- eta arau-kontrolaren mende jarritako xedapenari ondoen zein egokitzen zaion. Esate baterako, 2/2011 Zirkularra, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren zuzendariarena, 2011ko otsailaren 11koa.
http://jakina.ejgv.jaso/contenidos/informacion/circulares_2011/eu_def/adjuntos/circular_02_11_e.pdf

- c) Aurreproiektuaren 15.3 artikulua, jendaurreko informaziorako eta entzunaldirako izapideak alde batera noiz utzi daitezkeen zehaztean, ezaugarri objektiboak dituztenak edo apreziazio-elementu objektiboak dituztenak aipatzen ditu (aurrekontu- edo antolamendu-arauak badira, edo hori justifikatzen duten interes publikoko arrazoi larriak badaude), baita balorazio-parametro objektiborik ez dutenez ekimena sustatu duen organoaren erabaki subjektibo libreari lotuta dauden beste batzuk ere.

Arau-proposamenak ekonomia-jardueran eragin «nabarmenik» ez duen kasua edo hartzaileei betebeharrak «nabarmenik» eskatuko ez dien kasua edo gai baten alderdi «partzialak» arautzen dituen kasua aipatzen ditu, baina ez da zehazten zer kasu diren edo zer irizpen-elementuren arabera erabakitzen diren kasuok, hots, arauak jarduera ekonomikoan duen eragina zer kasutan har daitezkeen garrantzitsutzat edo ez, edota arauditik eratortzen diren betebeharrak zer kasutan diren garrantzizkoak araudiaren hartzaileentzat, edo proposatutako erregulazioa zer kasutan den partzialtasun handiagokoa edo gutxiagokoa.

Gure ustez salbuespenezko beharko lukeen arau baten zehaztasunik ezaren ondorioz gerta ez dadin, justifikazio formal baten bitartez, garrantzitsua izan daitezkeen izapide bat alde batera uztea, Bulego honen iritziz, eta segurtasun juridikoaren printzipioaren alde eginez, gehiago mugatu behar dira aipatutako izapideak beharrezkoak izango ez diren kasuak, nahiz eta aztertzen ari garen hau garapeneko erregelamendu-mailako arau batek osa dezakeen lege-aurreproiektua izan.

- d) Txostenaren xedeko lege-aurreproiektuarekin lotuta dagoen gaia da, jarduera administratibo kopuruarengatik eta tartean sartutako baliabide ekonomikoaren kopuruarengatik garrantzi berezia duena, administrazio honen diru-laguntzen programei ematen zaien trataera. Diru-laguntzen programa horiek, edozein dela ere laguntzak emateko erabiltzen diren tresnaren izaera juridikoa (programa horietako batzuk arau-ahalmenik gabeko sektore publikoko erakundeetakoak dira), Bulego honek aztertu behar ditu, EKLDk esleitzen dizkion eginkizunak betetz, hargatik eragotzi gabe arau-xedapen orokorrak dituzten proiektuei eta aurreproiektuei buruzko eginkizunak.

Txosten honen asmoa ez da eztabaida honetan sakontzea: ea diru-laguntzak emateko oinarriak xedapen orokor baten bitartez onartu behar diren dagokion deialdia baino lehen. Soil-soilik adierazi nahi dugu Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrean (DLO) definitzen den lehentasunezko eskema hori bada ere, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legeak⁴ (EONAL) ez duela baztertzen oinarriak eta deialdia ekitaldi berean formulatzea ekitaldi bakarrerako, hori baita Administrazioak gehien erabiltzen duen aukera.

Praktika horrek, diru-laguntzen programak ondorengo urteetan sistematikoki errepikatzearekin batera, agerian uzten du arau-xedapen baten bitartez onartutako oinarri egonkorrik ez izatea konpontzeko bidea desegokia izan litekeela (hartara, ikusten da sistematikoki falta direla elementu garrantzizko batzuk, hala nola jendaurreko informazioa, neurriaren egokitasuna erkatzeko bide emango lukeena, edota garrantzi sozialeko alderdi batzuen omisioa).

Bulego honek badaki zein den, funtsean, jardunbide horren hedapenaren oinarria: diru-laguntzak emateko oinarrien funtsezko elementu batzuk ekitaldi bakoitzean egokitu edo doitu behar direnez, ezinezkoa da, dagokion ekitaldiaren barruan, aldaketak izapidetzea xedapen orokorrak egiteko (aldatzeko) prozeduraren arabera, deialdia egitea eta gero kudeatzea.

Adierazi behar dugu aipatzen ari garen Legearen aurreproiektuak, lege horri lotutako arau-xedapen orokorraren kontzeptua zehaztean, honako aurreikuspen hau gehitzen duela:

«3.2 artikulua. Ez dira halakotzat joko (xedapen orokorra), nahiz eta batzuk eta besteak organo berek emanak izan eta arau-xedapen orokorren forma berbera hartu, hartzaile-multzo zehatzei edo zehaztu daitezkeenei eragiten dieten administrazio-ebazpen edo xedapen partikularrak, ez eta xedapen orokorrak, betiere batzuk eta besteak administrazio-egintzatzat baino hartzen ez badira, eta iraunkortasun-asmorik ez izanik, behin aplikatuta agortzen direnak, nahiz eta mota askotako kasuetan aplikatzeko asmoa izan edota edukia administrazio-egintza

⁴ Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako testu bategina.

orokor horietan zeharo zehaztuta dakarten beste betearazpen-egintza batzuk eragiten dituztenak».

Gure ustez, aurreikuspen hori ez da behar bezain argia; izan ere, gerta liteke jurisdikzio-istantzia batek onartzea diru-laguntzen programen oinarriak eta deialdia arau-xedapen orokortzat hartu behar direla eta, ondorioz, jarduketan deuseztasuna agintzea⁵. Horrenbestez, «diru-laguntzen programetarako» prozedura-aurreikuspen espezifiko bat ezartzearen alde gaude. Aurreikuspen horrek herritarren bermeak eta deialdien kudeaketa-arintasuna uztartu beharko ditu.

Gauzak horrela, txosten honetako atal honetan adierazi nahi da egokia dela, oinarriak eta deialdiak txertatzen dituzten ekimenen izaera juridikoari buruzko eztabaida sistematikoak beharrezkoak diren errekurtsoak baino gehiago har ez ditzan, honako esanbidezko aurreikuspen hau kontuan hartzea: diru-laguntzen programen kasuan, salbu eta oinarri intenporalak aukeratzen badira, programa

⁵ Hain zuzen ere, litekeena da ekimena aurkaratu eta baliogabetzat jotzea, onartzeko prozedura egokia bete ez delako, eta ildo horretatik aipa daiteke, besteak beste, EAEANren 531/2016 epaia, abenduaren 7koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak 2015eko irailaren 2an emandako Aginduaren aurkako errekurtsoan eman zena. Agindu horren bitartez unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta -laguntzetarako 2015-2016 ikasturteko deialdia egin zen.

Agindu hori ikasturte horretarako zen eta hortxe bukatzen zen, baina jarritako demandaren aurrean, Administrazio honen defentsak ukatu behar izan zuen «Agindua xedapen orokorra zela, egintza anitza delako, ikasturtera mugatutako indarraldiak frogatzen duenez». Bada, epaitzaren bosgarren apartatuak iritzi zionez, «Beken araubide juridikoa arautzen duen xedapen orokorra denez, eta alde zuzenetik ezarritako araubide juridikoaren esparruan urteko deialdiaren administrazio-egintza soil bat ez denez, zehapena erabat deuseza da azaroaren 26ko 39/1992 Legearen 62.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera...»).

Adierazi behar da Administrazio honek berak kasazioan errekurritu duela epai hori, eta ezin dela irmotzat hartu, eta kasazio-errekurtsoa ebazteke duela Auzitegi Gorenak. Ildo horretatik, eta daukagun datu bakar bat ere aipatu gabe ez uzteko, adierazi behar dugu Auzitegi Gorenaren azaroaren 30eko 1873/2017 epaia (R 2017/5147), zeinak gai honi buruz Auzitegi Gorenaren 2015eko martxoaren 3ko epaian adierazitakoa errepikatzen baitu (RJ 2015/965), ez dirudiela bat datorrenik EAEANk epai horretan adierazitako planteamenduarekin; EAEANren ildo berean, Auzitegi Nazionalaren uztailaren 21eko 312/2016 epaia aipatu behar da (JUR/2016/170382)

horiek diru-laguntzen araudi orokorrak ezartzen duen prozedura espezifikoaren arabera izapidetuko dira.

Ildo horretatik, Diru-laguntzen Lege Orokorraren 17.1 artikuluan, oinarrizkoa izan gabe eta Estatuko Administrazioari dagokionez, prozedura sintetiko bat ezartzen du diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzeko, eta oinarri horiek Administrazio honek hartzen duen jarraibidea argitu dezakete.

Horri dagokionez, aurreratu behar dugu litekeena dela EAeko diru-laguntzen lege-aurreproiektuak –XI. legegintzaldi honetako lege-egutegian ere aintzat hartzen dena– barnean hartzea prozedura espezifiko bat eratzeko aukera, diru-laguntzak emateko oinarriak ezartzeari dagokionez (oinarri intenporalak). Gure ustez, nahitaezko printzipio juridikoen barruan, «prozedura sinplifikatu» edo sintetiko bati ekin behar zaio, diru-laguntzen araudiaren eskakizunak eta diru-laguntzak emateko erabiltzen diren tresnak izapidetzeko behar den arintasuna uztartu ahal izango dituen.

Izan ere, ez da baztertu behar aukera hau: aurreproiektuak berak prozedura orokor sinplifikatu bat hartzea, prozedura horretara biltzeko beharrezkoa den segurtasun juridikoa bermatuko duten parametro batzuen barruan.

Onartzen dugu zaila dela xedapen orokorrak egiteko prozedura sinplifikatu bat gauzatzeko balizko esparru bat mugatzea, baina aukera horri buruzko gogoeta egitea proposatzen dugu, Administrazio honen efikazia eta efizientzia hobetze aldera prozedurak gauzatzeari dagokionez. Dena den, eta Ogasun eta Ekonomia Sail hau denez EAeko diru-laguntzen legearen aurreproiektuaren sustatzailea, eta arestian adierazi dugunez, aukera hau landuko da: diru-laguntzen programen oinarriak onartzeko prozedura arintzea, organo sustatzaileek errazago eta arinago egin ditzaten izapideak eta, aldi berean, legezko printzipioak bermatuta.

- e) Komenigarria izango litzateke aurkeztutako testuaren 16. artikuluko 1. apartatuko testua berrikustea; izan ere, ematen du esaldi hau sobera dagoela: «Xedapenaren testua aurretik onartzeko».

7. Ekonomiaren barne-kontrol mota honi dagozkion azterketa-elementuekin jarraituz, egiaztatu da aztertutako proiektuak ez duela aldatzen Euskal Autonomia Erkidegoko

Administrazioaren antolamendu-egitura, ez delako organo berririk sortu eta lehendik dagoen organorik ez delako ezabatu edo aldatu.

8. Era berean, ez dauka eraginik Euskadiko Ogasun Nagusiari dagozkion gaietan, hots, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 1.2 artikuluan zehaztuta daudenetan.

9. Erreferentziatzko espedientean dagoen dokumentua aztertu ondoren, ondoriozta daiteke aztertutako proiektuak ez dakarkiola Autonomia Erkidegoko Administrazio honi zuzeneko betebeharrak ekonomikorik, ohiko aurrekontu-baliabide erabilgarriez gain finantzaketa gehigarria eskatzen duenik; horregatik, hasiera batean, ez dauka zuzeneko eta berehalako aurrekontu-eraginik Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren aurrekontuetan gastuari dagokionez. Era berean, ez du ematen Administrazio horren plantilla eta ekipamendua gaur egun osatzen duten giza baliabideak edo baliabide materialak baino gehiago behar dituenik hura aplikatzeko eta eraginkorra izateko.

10. Sarreraren aldean ere ez da eraginik nabari.

Adierazitakoa da aztertutako aurreproiektuari buruz iruzkindu beharreko guztia, eta txosten hau ematen da, izapidetutako espedienteari gehitzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko irailaren 19a

ELEKTRONIKOKI SINATUA
Iñaki Vaquero Manrique
EKONOMIA- ETA ARAUDI-KONTROLA

ELEKTRONIKOKI SINATUA
O.E.: Javier Losa Ziganda
KONTROL EKONOMIKOKO BULEGOAREN
ZUZENDARIA